

# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTOCARTE. KUTXATEKA.

## BASARRI, IRABOLA ETA ALKAIN, 1935EKO BERTSOLARI EGUNEAN

Artikuluak ilustratzen duen argazkia irudi historikoa da, eta denboraren igarotzea ere nabaria, izan duen narriadura bezala. 1935eko urtarilaren 20an, Donostian, Bertsolari Eguna ospatu zen Kursaal Handiko Poxpolin Antzokian. “El Día” egunkariak dokumentatu zuen Telesforo Monzon buru zuen Euskaltzaleak elkarteak antolatutako ekitaldia. Egun hartan, bertsolariek “Udarregi” sarian hartu zuten parte. Kronikariak bere artikuluan adierazi zuenez, «bertsolariak, bi aulki ilaratan lerrokatuta, eguneko heroiak dira». Guztira, 19 bertsolarik parte hartu zuten, eta ekitaldiak hiru orduko iraupena izan zuen. Artikulugileak deskribatzen duenez, «inoiz ezin izan genuen

imaginatu halako alturara iritsiko zenik bertsolarien inspirazioa... trebetasun mirari bat zen hura». Inazio Eizmendi “Basarri”, jatorriz Zarauzkoa eta artean 21 urte besterik ez zituen, lehenengo bertsolari txapelketatzat hartzen den lehiaketako irabazlea izan zen. Bigarren Matxin Irabola geratu zen, Senpereko bertsolaria, hilabete batzuk geroago hil zena. Eta hirugarrena Akilino Izagirre izan zen, azpeitiarra. Ricardo Martinen argazkia Eusko Gaztedi-ren egoitzan egindako bazkariaren ondoren ateratakoa da, eta bertan Inazio Eizmendi, Matxin Irabola eta Fernando Alkain ageri dira, txapelketan laugarren izan zena.